

Funtsezko elkarteak

Aliantza mota bakoitza, ondo bereizitako estrategien emaitza da eta lau motatako aliantzak daude:

- Elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak.
- Lehiakideen arteko aliantza estrategikoak.
- Negozio berriak sortzeko enpresen arteko elkarteak.
- Erosle eta hornitzaileen arteko harremanak, materialen eskuragarritasuna bermatzeko.

Itunak egitea interesgarria da negozio-eredua optimizatzekoa, arriskuak murrizteko eta baliabideak eskuratzeko aukera ematen duelako. Itunak izan daitezke zerbitzuak edo produktuak azpikontratatzeko, ezagutza eta azpiegiturak bateratzea, etab. Gainera ez da batere praktikoa izaten enpresa batek berak jarduera guztiak egitea.

Gure enpresa lehiakideen arteko aliantza estrategikoa izango da, merkatu-segmentu bera erakartzeko lehiatzen diren enpresen arteko aliantzak dira (Koopetentzia). Aterkiak egiten dituen fabrika batekin elkartu beharko gara, Gotta-rekin hain zuzen. Haiek aterkia eginda emango digute, eta trukean guk haien markari publizitatea emango diegu. Hornitzaileak *Gottarekin* batera, Txinako *Txiwinplast* eta *Berkomat* enpresak izango dira. Hari erosiko dizkiogu barillak eta plastikoak. Eta sistema elektrikoa berriz, Oiartzuneko *Berkomat* enpresari.

